



## Lekunbarri aldeko futbolista gaztiak

**A**urreko hillabetietan orrialde honetarako gerra aurreko argazkixak aukeratu baldin badittugu, noizian behin barritsuaguak agerketia be komeni danez, gaurkuan orain dala hogeita hamar bat urteko mutiko-talde hau dakartzeugu. Seguru honeik ezaguketako eztozuela beste batzuetan adiñako zailtasunik.

Lekunbarri aldekuak dirala aurreratu dogu izenburuan. Bueno, orduan **Lekunbarri, Portalekua, Lezesarri/Altzibar, Atzeko kale** edo **Auzotxo** inguruetan bizi ziranak. Beste modu batera esanda, **trianatarrak** eta auzokidiak. Eztira danak kuadrilla berekuak, ezta edade batekuak be: 1960 eta 1963 bittartian jaixuak dittugula kontuan izanda, fotografixia 1974-1975ekua-edo izan leike.

San Lorentzoko futbol-kanpuan (futbol-zelaixa jartia lartxo izango da, ezta?) dagozela emuten dau, Aloña Mendik antolaketan eben herri-maillako txapelketa bateko partidua jokaketako prest. Goititik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue "ostikolari" gaztiok:

Zutik: Felix **Irizar Aittape**; Joxe **Otamendi**; Migel **Ugarte, Eskolatxo**; Pedro **Murua**; Agustin **Urzelai**; eta Juan Mari **Elorza**.

Makurtuta: Jon **Santa Kruz**; Juan Mari **Uribarri**; Aitor **Ugarte, Bellotza**; eta Felix **Ugarte, Eskolatxo**.

J. E.

Egixa esateko, ezkeben uste orain hurrenguan jarri gittuan karnabaletako argazkixen gaiñeko argibiderik etorriko xakunik. Ba, hara! Genobeba Aranburu eta Jesus Mari Ugarteren bittartez jakin ahal izan dogu fotografixok Kasablanka aldian atarata dagozela: bata denbora bateko kurtiderixako etxe eta fabrika aurrian, atzian ezkerretara Santa Kataliña baserrixa dakola; bestia, berriz, zaldi-kotxiena, Antzokua eta Urbietako kamiño-zati horretan egon leike, akaso. Txorimalotutako pertsona danak gizakumiak ei dira, baita emakume jantzitta agerketan diranak be. Eta bi gutxienez identifikaitte modukuak: ezkerretik bigarrena, txanuaz eta pixukiarekin, Goribargoiti baserriko Esteban Leanizbarrutia ei da; eta kuadrillako beste bat Kale Barriko Enrike Elorza, Etxaluzekua; kotxero-lanetan dabiliena izan leikiela pentsaitten dogu, Enrike *Etxaluze* gizakote galanta zala entzun izan dogu beti-eta. Milla esker informatzaillioi!